



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

2022ko abenduaren 15ean onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2023ko maiatzaren 25ean, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenan. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2023-04-27eko ohiko osoko bilkuraren akta, (4.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 2an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obrak, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 16an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Kantoikrit Oñatiko Kriteriuma Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena eta dirulaguntza zuzena onartzea, kirol informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 16an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalean aldi baterako lan poltsak eta kontratazioak kudeatzeko funtzionamendua arautzen duen ordenantzarik hasierako onarpenera ematea, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 8an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta AFAGI elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea "Estimulazio Kognitiboko Tailerra" martxan jartzeko, ongizate informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 16an.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Auzo-taxi programaren baitan, taxilariekin adostu beharreko lankidetzaren hitzarmen eredia onartzea, zerbitzuak eta landa garapen informazio batzordean diktaminatua 2023ko maiatzaren 17an.
8. Hala badagokio, presako gaiak.
9. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
10. 2023ko apirilaren 22tik 2023ko maiatzaren 18ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 578 zenbakitik 690 zenbakira.

11. 2023ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (11., 12 eta 13. saioak).
12. 2022ko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunaren laburpen txostenaren berri ematea.
13. 2022ko ekintza planaren berri ematea.
14. 2022ko ekintza planaren egokitasun-txostenaren berri ematea.
15. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udaltatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gairerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2023ko maiatzaren 22an
Alkateak
Izaro Elorza Arregui

